



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

CPAEN NNPEK



ES-FEO05-NA

CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAFARROAKO NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA



Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural:
Europa invierte en las zonas rurales

TXOSTENA

www.cpaen.org
www.navarraecologica.org



CPAEN NNPEK  ES-ECO-025-NA

CONSEJO DE LA PRODUCCIÓN AGRARIA ECOLÓGICA DE NAVARRA
NAFARROAKO NEKAZAL PRODUKZIO EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural:
Europa invierte en las zonas rurales

1996tik 2018ra

Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseilua CPAEN-NNPEK kontrolerako agintaritza publiko bakarra da Nafarroan. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen ekologikoa ondoko europar araudiak erregulatzen du: 834/2007 (EB) Araubidea eta 889/2008 (EB) Araubidea eta 1996. urtetik izan dituen aldaketak, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseilua CPAEN-NNPEK sortzen duenean kontrol publikoaren erregimenean, 617/1999 Foru Dekretua.

2018, etorkizun handiko eta oparoko urtea

Europar Kontseiluaren arabera nekazaritza ekologikoa azkar hazten ari da, urteroko erritmoa %6-9 artekoa delarik. EBn 20.000 milioi euro baino gehiago sortzen ditu eta EBko nekazal lurren %5,4 hartzen du.

Azken hamar urtetan laukoiztu da eta gainera, kontsumitzaileen eskaera handia dago.

Eskaera handiagoa da ekoizpenean. Europar Batasuneko eskaera eta ekoizpenaren arteko diferentzia inportazioekin berdintzen da, eta horrek nekazaritza ekologikora lotutako ingurumen onurak muriztea ekar ditzake.

Nafarroan

624 operadore, 57.311 kontrolatuta dagoen azaleraren hektareak eta 1300 elikagai ziurtatuta.

Azalera

- 1996: 700 Has
- 2017: 48.000 has
- 2018: 57.311 has

Ziurtatutako nekazal azalera : 2017ko urtarrilean 39.432 has izatetik, 2018. urtean 46.995 izatera. %18ko gorakada.

Nafarroako nekazal azaleraren %4,8k ziurtagiri ekologikoa du.

Operadoreak

2017ko urtarrilean operadoreak: 553

2018ko urtarrilean operadoreak: 624.

2017. urtean 107 operadore berri.

%12,8ko gorakada.

CPAEN/NNPEK-k hiru alorretan lan egiten du

Kontrola eta ziurtapena, sustapena eta kudeaketa

- **Kontrola eta ziurtapena:** kontrol eta ziurtapen sistema eraginkorra, objektiboa, inpartziala eta gardena lortzea eta bermatzea du helburu kontsumitzaile, erakunde, administrazio eta operadoreei sinesgarritasuna emateko.
 - **Sustapena:** kontzientziazioa, kanpainak ikusgai egin, kontsumoa sustatu, gizartearekin elkarrekin aritu eta aurreiritziak bukatzeko lan egin. Horrez gain, operadoreek informazioa izateko haiekin lan egin, hala nola, antolatzen diren ekintzetan parte hartzen eta haien produktuak sustatzen.
 - **Kudeaketa:** estrategiak definitu, sektorea koordinatu, instituzionalki ordezkatu, proiektu berriak sortu eta giza baliabideak kudeatu.
- Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilua NNPEK 1996tik kontrolerako agintaritza publiko bakarra da, eta horretaz gain nekazaritza ekologikotik eratorriko jakiak ziurtatzeaz eta sustatzeaz arduratzen da.
 - Hortaz, NNPEK-k ekoizle eta azpiegituretan ikuskapenak egiten ditu, behar diren laginak hartu eta laborategi independenteetan analisiak egiten ditu. "Nekazaritza ekologikotik datorrela" ziurtatu baino lehen beti egiten den urratsa da. Behin fase hori gainditu delarik, jakiak bere etiketan izanen du ekoizpen ekologikoaren berriazko aipamena.
 - NNPEKko ikuskariek urtero kontrolatzen dituzte Nafarroa osoko ustiategi ekologikoak.
 - NNPEKk aurrera eramaten duen beste lan bat da elikagai ekologikoen kontsumoa zabaltzea, sustatzea eta promozionatzea hainbat jardueren bitartez, hala nola, formazioak, aisialdi ekintzak, publizitatea etab. Horietatik, nabarmentzekoa da Nafarroako Azoka Ekologikoa, urtero maiatzean ospatzen dena.
 - Gainera, 2017an Prentsa Bulegoa martxan jarri da, kazetarien jarduna errazteko asmoz www.navarraecologica.org webgunean. Bertan, prentsa-txostenak, prentsa-oharra, albisteak, elkarrizketak, argazkiak eta deskargatzeko bideoak daude.
 - Modu honetan, kazetariak NNPEKk sortutako informazio guztia ikusteko aukera dute uneoro.

CPAEN/NNPEK osatzen duten pertsonak honakoak dira: Kontseilua, Batzordea, Operadoreak, Talde Teknikoa, Salmenta Puntuak eta Nekazaritza Ekologikoaren Lagunak. Nafarroako Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekologikoa eta bere produktuak herritarren gertu izateko lan egiten dute. Era berean, helburua da nekazal ereduaren eraldatzean parte hartzea eta kontsumo erdua ekologiarene alde egitea.

Componentes del Consejo

- Edorta Lezaun Etxalar (kontseiluburua)
- Miren Lizasoain Baleztena (kidea)
- Francisco Yoldi Arbizu (kidea)
- Franco Malucelli Bruno (kidea)
- Raúl Ripa Zudaire (kidea)
- David Garnacho Dubrot (kidea)
- Jesús Mangado Urdaniz (kidea)
- Juan Antonio Lezaun San Martín (kidea)
- Jokin Resano (Nafarroako Gobernua)
- Enrique Arnedo Pérez (zuzendari teknikoa)



NNPEK-ren helburuak

1. **2020rako**, Nafarroan lantzen den luraren azaleraren %10a nekazaritza ekologikoa izatea.
2. **Eskaria handitu eta sektore eta alor berriak gehitu** produktu ekologikoen publikora. Zer ari gara egiten:
 - a. Tokiko merkataritza
 - b. Ostalaritza
 - c. Salgune handiak
3. **NG** erosketa publikoan inplikatu (eskoletako jantokiak, ospitaleak).
4. Labore ekologikoaren alde egiten duten **nekazarien zenbatekoa handitu**.
5. Produktu ekologikoen **salmenta puntuak eta ostalaritza guneak zabaldu**.
6. **Hurbileko erosketak** eta kontsumo zirkuitu laburrak sustatu
7. Munduko ingurumen iraunkortasunerako nekazaritza ekologikoak duen garrantziaz kontzientziatzea, pertsona guztien osasunerako, lurra zaintzeko eta harreman ekonomiko bidezkoagoak eraikitzeko bide izanik.
8. **Heziketa proiektua**: irakasleentzat deskargatu daiteke PDF formatuan webguneko atal batean. Haur Hezkuntzako ikasleekin lantzeko eta estrategiak garatzeko baliabidea da.
9. **Bilketa zentroa**: kontsumitzaile handiei produktu ekologikoak banatzeko balioko du: hala nola, salmenta puntuei, eskola jantokiei eta ostalaritzari. 2018an martxan jartzea aurreikusten da.
10. **Komunikazio politika**: talde politiko desberdinei ekoizpen ekologikoari buruz eta sektorearen beharrezan buruz informatzea.
11. **Komunikazioa**: hedabideekin lan egitea eta NNPEK-rekin kazetariak duten harremana erraztea. Albiste agentzia.

WEBGUNEA (navarraecologica.org) ETA SARE SOZIALAK

HELBURUA: Mundu guztiari heltzea. Webgune dinamiko eta elebiduna.

1. **Egunkari Digitala** Navarra BIO webgunean txertatzea (albisteak): hilabetero bidaliko dugun newsletterera harpidetu zaitezke.

2. **Jardueren agenda:** azokak, ekitaldiak, formakuntzak... Nafarroakoak, nazionalak eta nazioartekoak.

3. **Salmenta puntuak:** saltoki motaren arabera bilatu, udalerriak... MAPA

4. **Sare sozialak:** sare sozialak erabiltzen ez badituzu ere, Facebook, Twitter, Instagram eta Youtuben argitaratzen ditugun berriak ikusgai dituzu.

5. **Prentsa-bulegoa:** komunikabideentzako saila

- Prensa-oharrak eta argazkiak
- NNPEK txostena: NNPEK datuak
- Baliabide argazkiak eta bideoak

6. **Komunikazio ekintzak:** Prentsa-bulegoaren bidez egiten den komunikazioaz gain, hainbat ekintza egin dira ekoizpen ekologikoa sustatze aldera. Horien artean, nabarmentzekoa da Borraja Komandoa, Aquí la Tierra programaren bisita eta beste ekimen batzuk.

Gainera, ekintza hauei guztiei NNPEK-CPAEN Sariak gehitu behar zaie, 2017. urtean hasi ziren eta urtero antolatuko dira. Sari hauen helburua ekoizpen ekologikoarekin lotuta dauden pertsonen ibilbidea nabarmentzea da.

7. **Deskargatzeko materialak**

- Dokumentazio eta katalogoak
- Irudi korporatiboa
- Beste dokumentu batzuk: informazio esku-orriak

8. Errezeta: lanean. Nafarroan ekoiztutako elikagaien bilketa errezetekin, nola kozinatu, ezaugarriak eta propietateak.

SUSTAPEN PLANA

- Azokak: gero eta presentzia gehiago azoketan (Berdeago, Biocultura, Bioterra), Nafarroako Azoka Ekologikoa (maiatzean) eta Tokiko Produktuaren Azoka (urria)
- Merkaturatze kanpaina: zure erosketa ekologikoa zugandik hurbilago, tokiko merkataritza.
- Ostalaritza: Hemen baita ere elikagai ekologikoen kanpaina. Ostalaritza elkarte handienekin kolaborazio kanpaina: Nafarroako Ostalaritza, Reckrea, Anapeh eta Biochef.
- Erosketa publikoa: Erakundeekin batera egindako kanpaina administrazioek elikagai erosketak hainbat irizpiderekin egin dezaten. Hau da, ekologikoa, hurbiltasuna, behin-behinekotasuna eta freskotasuna kontuan izatea. Osasunean, ingurumenaren hobekuntzan, landa garapenean eta nekazal sektore ekologikoan eragina izateko.
- Material didaktikoa: haurrentzat zura-jokoak, heziketa proiektua, NNPEkri eta nekazaritza ekologikoari buruzko argibide-taula.
- Webgunea: www.cpaen.org webgune ofizialaren gaurkotzea lantzen ari da. Berregituraketa eta ber-diseinua egingen da.
- Formazioa: hainbat udalerritan nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroak egin dira.
- Dastaketak eta elikagaien aurkezpena
- Konparazio-ekintzak: produktu ekologikoen dastaketak versus produktu konbentzionalak hainbat tokitan. Hala nola, Tuterako merkatuan, Tomate zaharraren azokan.

NNPEK sektoreak

1.300 elikagai baino gehiago ziurtatuta eta 35 sektore


- Nekazariak
- Prestaturiko jakiak
- Handizkariak
- Aromatikoak
- Azukrea
- Alkoholdun edariak
- Edari freskagarriak
- Upategiak
- Kafea
- Haragia eta hestekiak
- Zerealak eta lekaleak
- Gozogarriak
- Bizigarriak
- Kontserbak
- Kosmetikoak
- Landare estraktuak
- Fruitu lehorrak
- Abeltzainak
- Irina
- Baratzeko jakiak
- Arrautzak eta deribatuak
- Inportatzaileak
- Hiltokiak eta despieze gelak
- Eztigintza
- Okindegia
- Pasta elikagaiak
- Pastelgintza
- Arrainak
- Gazta eta esnekiak
- Erdikontserbak
- Sagardotegiak
- Errotak
- Ozpinak
- Zukuak



DATUAK, ZENBAKIAK ETA ESTADISTIKAK

57.311 hektarea baino gehiago eta 1.300 elikagai ziurtatuta Nafarroako Foru Erkidegoan.

1996. urtean nekazaritza ekologikoko 700 hektarea izatetik 2018. urtean 57.311 hektarea baino gehiago izatera pasa da.



Nekazal azalera

2017ko urtarrilean 39.432 has izatetik, 2018. urtean 46.672 izatera. %18ko gorakada. Nafarroako nekazal azaleraren %4,8k ziurtagiri ekologikoa du.

2017ko urtarrilean operadoreak: 553

2018ko martxoan operadoreak: 632.

2017. urtean 107 operadore berri.

%12,8aren gorakada.

Zifretan (2017 urtea)

150 enpresa eraldatzaile, 6 inportatzaile eta 23 handizkari, 495 nekazari ekoizle, 75 abeltzain ekoizle eta 57.000 hektarea ziurtagiriarekin.

1.478 behi buru, 1.285 zaldi, 4.029 ardi, 669 ahuntza, 17.420 etxeko hegazti eta 631 erlauntz.

Datu bitxiak

Arrautzak: 2016. urtean 2.500.000 arrautz egotetik 2017an 3.293.400 arrautz egotera.

Behiak: 2016an 69,9 tonatik 2017an 85,4 tonetara.

Ahuntzak: 2016an 1,6 tonatik 2,51 tonara 2017an

Moxalak: 2016an 30,11 tonatik 2017an 37,42 tonara.

Nekazaritza ekologikoaren munduko negozio bolumena

2016. urtean Europak 33.500 milioi euroko salmentak izan zituen, aurreko urtearekin alderatuz %11,4ko gorakada

Ekoizle kopurua %6,9 hazi egin da Europan, denera 373.240 daudelarik.

Eko eraldatzaileena ere %10,2ko egoera izan zuen: Europan 65.899

Europar Batasuna hektareen arabera:

2015

Espainia: 1.968.570 ha

Italia: 1.492.579 ha

Frantzia: 1.361.512 ha

Alemania: 1.060.291 ha

Nafarroa: 48.024,53 ha

2016

Espainia: 2.018.802 has.

Italia: 1.796.333 has.

Frantzia: 1.537.351 has.

Alemania: 1.135.941 has.


Nafarroa: 57.311 has

Lur ekologikoan landutako proportzioaren arabera, herrialde bakoitzaren totalaren gainean

Ehuneko handiena duten herrialdeak gehi Espainia eta Nafarroa




Nekazaritza ekologikoa hektareetan Europar Batasunan



Sektore adierazgarrien bilakaera


Arrautzen urteko ekoizpena




BEHI HARAGIAREN URTEKO EKOIZPENA, TONETAN




AHUNTZ HARAGIAREN URTEKO EKOIZPENA, TONETAN




ARDI HARAGIAREN URTEKO EKOIZPENA, TONETAN




MOXAL HARAGIAREN URTEKO EKOIZPENA, TONETAN




CRECIMIENTO AGRICULTURA ECOLÓGICA. SUPERFICIE MUNDIAL EN MILLONES DE HECTÁREAS



LOS DIEZ PAISES CON MAYOR SUPERFICIE ECOLÓGIA EN MILLONES DE HECTAREAS



CONSUMO PER CÁPITA EN EUROS



The World of Organic Agriculture 2016

